

Asisko gutuna

2022ko apirila

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

162. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Maitasunaren gaiak ez du amaierarik. Gizakiaren bizi- eta sorkuntza-iturri nagusietako bat izan da beti. Maitasunaren ezaugarrietako bat apaltasuna izango da.

Gogoetarako gaia

Maitasunean bizi

Denok dakigu gure fedea maitasunaren agindua daramala berekin Jesusek zioen bezala: "Nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar". Hainbeste hitz egin eta entzun dugu esaldi hori... Ez digu ezer berririk adierazten. Eta, hala ere, gure fedearen sekretu garrantzitsuenetako bat da; eta gure historia pertsonala konkretuan sekretu hau aurkitzea da gehien hurbiltzen gaituena Jesusen misteriora, bere bizi-arrazoi sakoneenera.

Maitatzen ikastea bizitza osoko lana da. Maitatzen ikasten dugu maitasuna jasotzen dugunean, pertsona batzuek gure beharretan maitasunez zaintzen gaituztenean, besteen beharrei erantzuteko gai garenean, ia zerua ukitzear gaudela dirudien harremana gozatzen dugunean, edo sufrimenduaren eta frustrazioaren erdian maite ditugun pertsoneri zor gaitzaizkiela dakigunean.

Maitatzeko eta ez maitatzeko arrazoi eta arrazoi asko bizi ditugu; maitasuna errazten edo zailtzen duten egoera ugari daude; egoera batzuetan gauza asko eta handiak egin beharko ditugu maitasunagatik; beste batzuetan ezin dugu ezer egin egon eta jasatea besterik ez bada. Baina egoera guztietan maitatu egin beharko da. Horregatik, Paulok dio: "maitasuna eraman onekoa eta bihozbera da; ez du bekaizkeriarik, ez handiusterik, ez harropuzkeriarik...". Maitasuna umiltasunari lotuta egongo da beti. Eta batez ere, maitasuna norbait lotuta dago, zu bati; zeren zu bat ez badago, ez da maitasuna, ideia bat baizik, maitasunaren filosofia egitea. Eta kristau maitasuna Zu pertsonala maitatzea da batez ere, maite duen, salbatzen duen norbait bizia maitatzea.

Maitasuna, agindua edo bete beharreko araua baino gehiago, biziarazten gaituen dohaina da.

Ebanjelio pasartea: Jn 21, 15-17

Gosaldu zutenean, Jesusek esan zion Simon Pedrori: –Simon, Joanen semea, maiteago al nauzu hauek baino? Hark esan zion: –Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana. Orduan, Jesusek: –Larra itzazu nire bildotsak. Bigarrenegiz galdetu zion Jesusek: –Simon, Joanen semea, maite al nauzu? Pedrok, berriro: –Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana. Jesusek, orduan: –Zaindu nire ardiak. Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: –Simon, Joanen semea, maite al nauzu? Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: –Jauna, zuk dena dakizu, zuk badakizu maite zaitudana. Orduan, esan zion Jesusek: –Larra itzazu nire ardiak.

Frantziskotar espiritualtasuna

Eta ager dezagun geure egiteetan bihotz-berrituak gaudela. Eta maita ditzagun lagun hurkoak geure burua bezala. Eta norbaitek bere burua bezala maitatu nahi ez baditu, ez diezaiela bederen gaitz egin, on baizik.

Besteak epaitzeko ahalmena hartu dutenek, berriz, erabil bezate errukiz, beraiek Jaunarengandik errukia izan nahi duten bezalaxe. Zeren errukirik izan ez duenak errukirik gabeko epaia izango baitu.

Izan dezagun, bada, karitatea eta apaltasuna. Eta egin dezagun limosna, limosnak garbitu egiten baititu arimak bekatuen zikinetatik. Izan ere, gizakiek galdu egiten dituzte mundu honetan uzten dituzten gauza guztiak; berekin eramaten dituzte, ordea, karitatearen ordaina eta egindako limosnak, hauen saria eta ordain egokia jasoko baitute Jaunarengandik. (2CtaF 25-31)

Otoitza

[...]JAUNA, ZUK DENA DAKIZU.
BADA KIZU MAITE ZAITUDALA!
Zuk gugandik erreklamaten duzu
gure maitasunaren aitopena,
eta gero sostengatzera bidaltzen gaituzu, laguntzera,
gure senideen bizitza defendatzera.
Ogi pixka bat besterik ez dugu
eta gure maitasunaren pobrezia,
baina hori da eskaini ahal dizuguna,
eta horrekin Zu jarraitzeko prest gaude.

JAUNA, ZUK DENA DAKIZU.
BADA KIZU MAITE ZAITUDALA!
Ikusi gabe sinesten duten guztiekin,
etsi gabe bilatzen ari diren guztiekin,
bihotz apal eta txiki guztiekin,
sinesten eta aldarrikatzen dugu
Zuregan heriotza garaitua izan dela,
bizirik zaudela eta gure aurretik zoazela.

JAUNA, ZUK DENA DAKIZU.
BADA KIZU MAITE ZAITUDALA!

Dolores Aleixandre
(Lagunak bidean)

Gutuneko azken hitzak

“Handiustearen harrokeriatik hustuen gaudenean, orduan gaude maitasunaz beteak”.

Hiponako San Agustin


2022ko apirileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate erreferentzia guztiak:

| | | | | |
|----------------------|-----------------------|-------------------|------------------|-----------------|
| 1. Jn 7,1-2.10.25-30 | 7. Jn 8,51-59 | 13. Mt 26, 14-25 | 19. Jn 20, 11-18 | 25. Mk 16,15-20 |
| 2. Jn 7, 40-53 | 8. Jn 10,31-42 | 14. Jn 13, 1-15 | 20. Lk 24, 13-35 | 26. Mt 5,13-16 |
| 3. Jn 8, 1-11 | 9. Jn 11,45-57 | 15. Jn 18,1-19,42 | 21. Lk 24, 35-48 | 27. Jn 3,16-21 |
| 4. Jn 8, 1-11 | 10. Lk 22, 14-23,56 | 16. Lk 24,1-12 | 22. Jn 21,1-14 | 28. Jn 3,31-36 |
| 5. Jn 8, 21-30 | 11. Jn 12,1-11 | 17. Jn 20, 1-9 | 23. Mk 16,9-15 | 29. Mt 11,25-30 |
| 6. Jn 8, 31-42 | 12. Jn 13,21-33.36-38 | 18. Mt 28,8-15 | 24. Jn 20,19-31 | 30. Jn 6,16-21 |

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Apirileko otoitza hilaren
28an izango da.